

II. ERANSKINA

- ❖ **2023KO ASTE NAGUSIAN KANPO-MEGAFONIA JARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK**
- ❖ **BAIMENDUTAKO TERRAZEN ETA MEGAFONIAREN SOINU-MUGAK**

Erabilera publikoko espazioetan jartzen diren kanpoko megafonia-gailuetarako eta antzekoetarako onartzen diren soinu-mailen arloko betekizunak ezartze aldera –araudi orokorra edo kasuan kasuko araudi sektoriala ere kontuan izanik–, udal mugartea eremutan banatzen da, Bilboko Udalaren Jaien Ordenantzian xedatutako oinarritzko irizpidearen arabera, zehazki 6. artikuluaren arabera. Hauek dira eremuak:

- ❖ **1. EREMUA**

1. EREMUA intentsitate handienekoa da, txosnak jartzen diren jai-esparruari eta haren inguruari dagokiena, III. ERANSKINEKO planoarekin bat etorri. Hemen, **90 dbA onartzen da gehienez. Goizeko 5ak arte.**

- ❖ **2. EREMUA**

2. EREMUA, intentsitate txikiagokoa soinuaren mailan eta ordutegietan, BILBOKO UDAL MUGARTEAREN gainerakoa da. Hemen, 80 dbA baimentzen da gehienez. Goizeko 4ak arte.

Bestalde, megafoniaren kanpoaldeko aparatuak zonakatu eta mugatu egin behar dira, nahitaez. RAC bakarra izango dute horretarako, konpresore-mugatzaile batez hornitua, eta zigilatuta egongo da, orobat. Horretarako, eremu bakoitzak (txosna edo taberna multzo bakoitzak, eta abar) zonakatze-proiektu bat aurkeztu beharko du, honako alderdi hauek adierazita:

- Establezimendu bakoitzeko arduradunaren eta eremuak izendatutako koordinatzailearen izena, helbidea eta telefonoa (aurkitzeko moduan egon behar dute beti biek).
- RAC bakarra, amplifikadore guztiak eta mugatzaile-konpresorea dituena, itxia eta zigilatua, zer enpresak ezarri duen, eta hura erabiltzeaz nor arduratuko den (aurkitzeko moduan egongo da beti), eta RACaren bi giltza. Giltza bat Udal Ikuskaritzan gordeko da, eta enpresako koordinatzailearen edo pertsonaren esku geratuko da bigarrena.
- Megafonia-ekipoko bozgorailu guztien kokapenaren gaineko plano-krokisa (kableak ere zehaztuta). Establezimendu bakoitzean bozgorailuen elikadura eteteko aukera egongo da, baita giltza orokorra ere, RACean bertan.

Behin baimena eman ondoren, jaiak hasten diren eguneko goizean mugatuko dira ekipoak, aldez aurretik hitzordua eskatuta. Bertan egongo dira establezimenduko arduradunak, enpresa instalatzialeak, eremuko koordinatzailea eta udal ikuskariak.

Neurketak eremu bakoitzeko erdialdean egingo dira.

ANEXO II

❖ CONDICIONES GENERALES PARA LA INSTALACION DE MEGAFONIA EXTERIOR EN ASTE NAGUSIA 2023

❖ LIMITES SONOROS DE LAS TERRAZAS Y MEGAFONÍA AUTORIZADOS

A los efectos de establecer los requisitos exigibles en materia de niveles sonoros admisibles en aparatos de megafonía exterior y similares instalados en espacios de uso público y sin perjuicio del cumplimiento del resto de normativa general o sectorial aplicable a cada supuesto, el Término Municipal se divide en Áreas, acorde al criterio base dispuesto en la Ordenanza de Fiestas de la Villa del Ayuntamiento de Bilbao, en particular en su artículo 6 y que son las siguientes:

❖ ÁREA 1

En el AREA 1 de máxima intensidad, correspondiente a las zonas del recinto festivo en las que se ubican las distintas txosnas y sus proximidades, acorde al plano contenido en el ANEXO III, se permite un máximo de 90dbA. hasta las 5.00h de la mañana.

❖ ÁREA 2

En el AREA 2 , de intensidad atenuada en nivel sonoro y horarios, correspondiente AL RESTO DEL TERMINO MUNICIPAL DE BILBAO se permite un máximo de 80 dbA. hasta las 4.00h de la mañana.

Por otra parte, queda establecida la obligación de zonificación de los aparatos exteriores de megafonía mediante RAC común dotado de compresor-limitador y precintado. A tal fin, cada zona (grupo de txosnas, bares, etc.) presentará un Proyecto de Zonificación con expresión de los siguientes extremos:

- Nombre, domicilio y tfno. del responsable de cada establecimiento y del coordinador designado por la Zona, ambos permanentemente localizables.
- Empresa instaladora del RAC común cerrado y precintado, conteniendo todos los amplificadores y el limitador-compresor, con señalamiento de persona encargada de su manipulación permanentemente localizable, y dos llaves del RAC, quedando una en depósito en la Inspección Municipal y la segunda en poder del coordinador o persona de la empresa.
- Plano-croquis de posición de todos los altavoces del grupo de megafonía con su cableado, disponiendo cada establecimiento de interrupción de alimentación a sus altavoces, además de la llave general en el propia RAC.

Una vez autorizada, la limitación de los equipos se realizará en la mañana del día de inicio de las fiestas, con cita previa, en presencia de los responsables del establecimiento, empresas instaladoras, coordinador de Zona e inspectores municipales.

Las mediciones se realizarán en el área central de cada zona.